

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	<p>IL0046</p>	<p>Biztanleen Udal Errolda: Europar Batasuneko atzerritarren zein bizileku iraunkorra duten Europar Batasunetik kanpoko atzerritarren bizilekua ziurtatzea</p>
---	----------------------	---

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Izapide hori egin beharko dute Europar Batasuneko atzerritarrek zein bizileku iraunkorra duten Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrek. Kasu horietan, erroldan izena emanda egotearen baieztapena bi edo bost urtez behin egin beharko da, kasuaren arabera. Berriztapena ez bada adierazitako epean egiten, Biztanleen Erroldan baja espedientearen hasiera erabakitzeke zergatia izango da.

NORK ESKA DEZAKE?

Europar Batasuneko atzerritarrek zein bizileku iraunkorra duten Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrek.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E007 Eskabide orri orokorra](#)
- Erroldako izen ematea baieztatzeko jakinarazpenaren aurre-ohartarazpena jaso ondoren, NO ENCSARP izeneko bizileku baieztapen eskari eredia bete beharko da.
- Bizileku txartela, Espainiako agintariek emandakoa, indarrean, edo bere nazionalitateko herrialdeko pasaportearen edo NAN indarrean (iraungituta badago, berriztapenaren frogagiria ere aurkeztu beharko da). Kasu guztietan ere, Atzerritarren Erregistro Nagusian izena emanda egotearen ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Adingabeen kasuan, berriztapen eskaria guraso batek edo adingabearen ardura duen lege ordezkariak sinatu beharko du.
- Berriztapena ez bada adierazitako epean egiten, Biztanleen Erroldan ofizioz baja espedientearen hasiera erabakitzeke zergatia izango da.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Ez da inolako tasarik edo prezio publikorik ordaindu beharko.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Berehala

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [15/1999 Legea, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoa](#)
- [7/1985 Legea, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituena](#), 15.1. art.
- [1690/86 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudia onartzen duena eta Lurralde Mugen Araudia](#) 53 eta hurrengoak
- [14/2003 Lege Organikoa, azaroaren 20koa, 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duena.](#)
- [Urtarrilaren 10eko 4/1996 Legea, udal erroldari dagokionean Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena.](#)
- [Abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretua, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Entitateen Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Erregelamendua aldatzen duena.](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskatzailearen datuak batu, egiaztatu eta eskaneatu.
2. Datuak biztanleen erroldako aplikazio informatikoan sartu.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Alkatetza

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Zerbitzu Orokorrak - Idazkaritza

OHARRAK

Erkidegoko Atzerritarren eta Asimilatuen eta Erkidegoko Bizileku Txartela edo Iraunkorra duten Erkidegotik Kanpoko Atzerritarren izen ematea Udal Erroldan bi edo bost urtez behin baieztatu beharko da, Atzerritarren Erregistro Nagusian izena emanda egotearen edo ez egotearen arabera.

Informazio gehiago

estatistika@amorebieta.eus

Udala: 94.630.00.02